

Platanoa gora, platanoa behera

PLATANO JOKOA, jaun-andreak! Irailaren azken igandea da eta, urtero legez, Enrique Abril oiartzuarraren izena daraman errebote txapelketa jokoan da Gipuzkoako errebote plazetan. Bizirik dirauten plazetan: Zubietan, Villabonan eta Oiartzunen. Beste makina bat hor dago, aspaldiko urtetan pilota punpa eta erreboterik sentitu gabe. Okerragoko atarramentua izan dute erail dituzten plazez: Segura, Usurbil... Erreboterako gauzaez.

Gaur Zubietan da partida. Zubietan eta Donibane Lohizune, Zubietan Pilota Elkarteko eta Luzaz Gazteko bi bosnakoak, aurrez aurre. Eder da plaza. Gauza gutxi, pilotariz bizi dagoen errebote plaza bezain eder.

Jokoan, platanoak (*Platanus x hispanica*) hitza du. Errebote plaza gehienetan platanoak daude alde bietan. Ikusleak abaroan dituzte, udako eguerdietan jokatzeko diren partida horietan. Joko-plazaren muga ere badira platanoak. Urtero mugarrotzen dira, jeneralean, eta platano motzek non edo handik puja lehertu behar. Ondorioz panpanoak alde guztietara, baita lurtean plaza mugatzen duen zintarriaren gainetik ere, plazaren zerua bereganatuz. Pilotariak, epaileak eta kantalariek ere gustura hartzen dute zerua kendu eta itzalpean hartzen dituen platanoa.



JAKOBA ERREKONDO

Panpanoak harantz eta honantz dabilta pilotari segika. Hara-hone-rakoak hego haizea harrotu du. Lurreko hautsa, lainaz gainezka, dantzan hasi da, pilota punparen atzetik, pilotarien hanketan zirimolan eta, nabarmen putzak hartuta, pasamarrako geldilariak, pilota geratu nahian, burua lurrera botatzen dutenean. Kareharri hautsak eztarriak lehortzen ditu, puntukantariari galdetu: “Sakeak bi, erreustuak esperantza”, kantatu ezinik dabil. Gainontzekoon eztarriak ere jotzen ditu, baita goitik behera zuriz jantzi ere. Platanoak ere zuri, zuriñaren onddoak ederki jota

dauzka, eta horren lizun zuriaren gainean, hauts zuria.

Platanoak jokatu egin nahi eta pilota hurbil samar datorrenean panpanoa luzatu eta laztantzen du. Jokaldiaren seinale, hostoren bat askatuko du. Donibandar pareteko Frederic Karrikaburuk botatakoari erantzunez Zubietakoak, Joseba Aizpuruak, jotakoari platanoak zirri egin dio. Bosna jokoko berdinketa izorratu dio etxeko platanoak. “Hamabost eta berrogei, jaun-andreak”, kantu urratua apenas entzun da. ■



Behea goiko muturrean

Herbehereek urrats izugarria eman dute. Europaren bihotzean dagoen estatu horrek, Animalien Aldekoen parlamentarien ekimen bati esker, Roundup herbizidaren salmenta debekatuko du. 2016tik aurrera ezin salduko zaie erabiltzaile partikularrei. Roundup horren osagaia glifosatoa da, gaitz askoren eragileztat jotzen dena. Dagoeneko Tasmanian, Errusian eta Mexikon galarazita dago. Jakinaren gainean zaude. Geurean barra-barra erabiltzen da, baita plaza eta lorategi publiko frankotan ere. ■



WWW.GMOEVIDENCE.COM